

Kontakatilu



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Isiltasunaren legearen kontra egiten dudana batzuetan kontakatilu esaten didate. Adjektibo ezkor bezala erabili ohi da, “konta-katillu dek ori ta gutxi piau”. Salatariak ere zentzu batzuetan ez du ospe onik, “salataria dana ez da gizon zintzoa”. Horrelakoetan arbasoek txutxu-mutxuan jarduten zutenekoa etortzen zait burura, beren bertute eta akatsekin.

Kontrol sozial informalerako erabiltzen zen orduan. Gogoan dut haurtzaro eta gaztaroan amona eta aitona batzuen berriketen testigu izan nintzela herriko jauntxoengandik inguruan. Boteretsuei aurre egiteko abilezia horri esker makina bat datu maneiatzen ziren, baita partekatu ere. Herritar xumeek ugazaben kontuen berri izaten zuten, aberatsen selekzioaren hamaikakoa, a-tik z-ra, izendatzeko gai zirela.

Kastaren bezerokeriaren, ate birakariaren eta ustelkeria estaltzeko ahalegin ezaren ondorioz nabaria zen erregimenari lotutako familia batzuen indarra. 60ko hamarkadan botere ekonomikoa hiru mailatan elkarbanatutako 25 dinastiaren esku zegoen. Goi mailakoak (Aznar, Careaga, Echevarría, Churruca,

Ustelkeria salatzen mugimendu sozialak urriak dira, Adi eta Kontuz elkarteak bakardadean aritu baitira azken urteotan. Hala ere badaude zantzu itxaropentsuak

Guzmán eta Ybarra); bigarren mailakoak (Ampuero, Delclaux, Urquijo, Aresti, Bordegaray, Gandarias, Arteche, Muguruza, Torrontegui, Gondra eta Lipperheide); eta azkenik hirugarren mailakoak (Aguirre, Oriol, Gortazar, González de Echavarri, Zubiria, Artiach, Laiseca eta Chavarri).

Gaur egun zalantzak ditut EAJri lotutako kastaren hamaikakoa izendatzeko dugun gaitasunaz. Are gehiago, Eusko

Jaurlearitzako ugazabak ustelkeriaren kontrol sozial formalaren aurka aritzen dira behin eta berriz: salatzen duten pertsonak babesteko lege proposamena eragotzi, ustelkeriaren diagnosis aurkezteko ekimena galarazi, ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzea oztopatu...

Espainiako politikarien ate birakariak infografia ugari irakurrita gaude baina ezer gutxi aztertu eta idatzi da euskal oasiaren ate birakariaren inguruan. Bezerokeriaren mapa islatzeko, jada aspaldikoa den *Bizkaiko Liburu Beltza* horrez gain lan gutxi aurki daiteke egunotan. Epaileak eta Fiskaltza kexu dira ustelkeria ikertzeko erabiltzen duten tresna ga-beziaz. Ustelkeria salatzen mugimendu sozialak urriak dira, Adi eta Kontuz elkarteak bakardadean aritu baitira azken urteotan.

Hala ere badaude zantzu itxaropentsuak: Iker Rioja eta beste kazetari batzuen lanak; Hiriko, Karrantza, Minda, edo De Miguel auzien epaiak; ustelkeriaren inguruan inkestek diotena; edota ustelkeriari, ate birakariari eta bezerokeriari aurre egiten gero eta tematiago ari direnak, alderdi politiko, sindikatu eta agente sozialak hain zuzen. ●

Basherrri
ERROKORRO KONTASUN TALDE ETA KOOPERATIBAK

Elika gaitzen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus